



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO IRAILAREN 12AN
EGUERDIKO 14:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Josune Estella Arranz.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Alaitz Aizpurua Labakak eta Irene Gartzia Palaciosek.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:

***2017KO UZTAILAREN 26KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek aho batez onartu dute 2017ko uztailaren 26ko bilkurako akta.

2.- AGINAGAKO FERMIÑENE BASERRIKO LURRETAN (1. POLIGONOKO 42. PARTZELA) ARRAULTZA EKOLOGIKOAK ERALDATZEKO ERAIKITAKO LANTEGIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA ETA BERTAN GARATZEN DUEN JARDUERARI IREKIERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0001

JESUS M. AGIRRESAROBÉ ARZALLUS jaunak, Aginagako Fermiñene baserriko lurretan (1. poligonoko 42. partzela) arraultza ekologikoak eraldatzeko lantegia ezartzeko obren amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 3an, JESUS M. AGIRRESAROBÉ ARZALLUS jaunari, Aginagako Fermiñene baserriko lurretan (1. poligonoko 42. partzela) arraultza ekologikoak eraldatzeko lantegia ezartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, 2017ko uztailaren 24ean Asier Arregi Hernández Ingeniari Agronomoak egindako obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, arraultza ekologikoak eraldatzeko lantegiaren lehen erabilera baimena eskatzen du.



Usurbilgo Udala

Eskaera aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2017ko abuztuaren 25ean aldeko txostena eman du.

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JESUS M. AGIRRESAROBÉ ARZALLUS jaunak, Aginagako Fermiñene baserriko lurretan (1. poligonoko 42. partzela) arraultza ekologikoak eraldatzeko eraikitako lantegia lehen erabilera baimena eta bertan garatzen duen jarduerari irekiera baimena ematea.

BIGARRENA: Bertan garatu nahi den jarduera, lehendik baimendutako jardueraren osagarritzat ulertzen denez, osasun sailak ezarritako baldintzak, hala nola bere egunean udalak ezarritakoak, bete beharko dira.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- KONTSEJUZARRA KALEA 9AN IGOGAILU BERRIA JARTZEKO ETA ZERO KOTARA JAISTEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0305

KONTSEJUZARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andereak, Kontsejuzarra kalea 9an igogailua berria jartzeko eta zero kotara jaisteko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 60.182,98 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 450 €
	Fidantza (%120): 540 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Ebiguren Azkune andereak, 2017ko abuztuaren 16an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: KONTSEJUZARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andereari, Kontsejuzarra kalea 9an



Usurbilgo Udala

igogailua berria jartzeko eta zero kotara jaisteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 450,00 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (540,00 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

540,00 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2017-0305*" jarriaz kontzeptuan.

- Ane Garmendia Placencia eta Patricia Castro Aristizabal arkitektoek 2017ko maiatzean (EHAE0 2017-05-25) idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Obren egikaritzak baimendutako proiektuaren neurriak bete beharko ditu ezinbestean. Ezingo dira neurri murrizagoak ezarri. Guzti hau Obra zuzendaritzaren erantzukizunpean.
- Obren egikaritzak EKT eta indarrean den gainontzeko araudi aplikagarria bete beharko du.
- Ezinbestean bete beharko da soinuaren inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira obren egikaritzan.
- Obra baimenaren epeak:
 - a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - c. Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.



Usurbilgo Udala

- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planuak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- ETXEBIZITZA BAT MOLDATUZ ERABERRITUTAKO GAZTELU BASERRIARI (AGINAGA 57) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0441

JOSE LUIS URKIA ZABALA eta JUAN RAMON URKIA ZUMETA jaunek, Gaztelu baserria eraberritzeko egindako obren lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK – ERAKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 24ean, JOSE LUIS URKIA ZABALA eta JUAN ARAMON URKIA ZUMETA jaunei, teilatupean etxebizitza bat moldatuz Gaztelu baserria eraberritzeko udal baimena eman zien.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraberritutako baserriaren lehen erabilera baimena eskatu dute.

TXOSTEN TEKNIKOA



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako idatzia aztertu ostean, 2017ko abuztuaren 24an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

UA2017_OHAN_01

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK

**GAZTELU BASERRIA BIRGAITZEKO LEHEN FASEAREN ZATI
BATEN OBRA AMAIERARI ETA 2. FASEAREN LEGEZTATZEARI
TXOSTENA**

KOKAPENA: Gaztelu baserria, Aginaga, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2016eko abenduaren 22

ESKATZAILEA: Juan Ramon Urkia Zumeta.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2014-0442

OBRA AMAIERAKO PEM: 111.639,96e

AURREKARIAK

- 2015eko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak Jose Luis urkia Zabala eta Juan Ramon Urkia Zumeta jaunei, teilatupean etxebizitza bat moldatuz Gaztelu baserria eraberritzeko udal baimena eman zien, hainbat baldintzapean.
- 2016ko abenduaren 22an interesatuak obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du lehen erabilera baimena eskatuz.
- 2017ko urtarrilaren 10ean udal arkitektoak txostena idatzi zuen, lehen erabilera baimena lortzeko bete beharreko baldintzak zehaztuz.
- 2017ko otsailaren 2an udal aparejadoreak zuinketa akta izenpetu zuen.
- 2017ko martxoaren 13an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2017ko martxoaren 21ean udal arkitektoak txostena idatzi zuen, besteren artean honakoak esanaz:
 - OBRA BAIMENAREKIKO ALDAKETAK:
 - o LEHEN SOLAIRUAN ETXEBIZITZA: Obra baimenak eraberritzearen lehen fasea barneratzen zuen eta bigarren fase baterako (zeinak zegokion Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera zegokion udal baimena lortu beharko lukeen), uzten zen estalki beheko etxebizitzaren egikaritzea. Hau da, lehen faseak ez zuen lehen solairurako etxebizitza erabilerari zegokion obrarik eta banaketarik aurreikusten. Orain aurkeztu den dokumentazioa zehazten denez, estalki behean egin nahi zen etxebizitza lehen solairuan egikaritu da. Ondorioz, esan liteke, emandako eraberritzeko baimenak ez zuela lehen solairuko etxebizitza hori baimentzen eta ez dela horri dagokion Exekuzio Proiekturik aurkeztu. Ondorioz, hura legeztatze dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da; memoria, planuak, aurrekontua, hondakinen kudeaketa, EKT justifikazioa, bizigarritasun baldintzen justifikazioa, irisgarritasuna, ... e.a.
 - AURREKONTUAREN EGOKITZAPENA: Hainbat aldaketa egin direla ikusi da eta aldiz, ez da aurrekontuaren egokitzapenik aurkeztu. Aurrekontu zuzendua aurkeztu beharko da.

(...)

ONDORIOAK:



Usurbilgo Udala

Goian aipatutakoari jarraituz, aipatutako dokumentazioa aurkeztea eskatzen da, behin hura jasotakoan, bertaratzea egin eta azterketa sakonago baten baitan ikus litekeenaren kalterik gabe."

- 2017ko maiatzaren 25ean interesatuak Gaztelu baserria birgaitzeko proiektuaren 2. fasearen legeztatze-proiektua aurkeztu du, dokumentazio gehigarriarekin batera.

Erlazionatuak: HZ13/2013-0495

TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, Juan Ramon Urkia Zumeta jaunak Gaztelu Baserria birgaitzeko lanen 2. fasearen legeztatze proiektua eta dokumentazio gehigarria aurkeztu ditu u. Legeztatze proiektuak jasotzen dituenak dira: memoria, planuak eta aurrekontua. Dokumentazio gehigarriak jasotzen dituenak dira: aurrekontu egokitua, hondakinen kudeaketa amaierako txostena, lurraldeko industria Delgeazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako egokitasun egiaztagiriaren kopia eta ur honrikuntzarekin Industria Delegazioak izenpeturiko buletina. Guztiak teknikari gaituak izenpetuak (arkitektoa) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiak (COAVN 2017-05-23).

Dokumentazioa aztertu eta bertaratzea egin ostean, honakoa esan daitezke:

- DOKUMENTAZIOA OSATZEA: Eskatu bezala, dokumentazioa osatu da eta 2. fasearen legeztatzea aurkeztu da.
- BERTARATZEA: (Ikus argazkiak) Bertaratzean ikusi da aurkeztutako legeztatze planuak eta egikaritu den obra bat datozela.
- ERAIKINAREN ZUINKETA AKTA ETA ALTUERA/AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA: Eraikinaren zuinketa akta egin zen eta teilatu hegala 20 cm igo izanaren justifikazioa, egiturazko arrazoiengatik, aurkeztu zu Obra Zuzendaritzak. Ez dago eragozpenik.
- EMANDAKO BAIMENAREKIKO ALDAKETAK: Eman zen baimenarekiko aldaketa nagusia da etxebizitza estalki behean egin beharrean lehen solairuan egin dela. Beraz, 2. faseko (lehen solairuko etxebizitza) obra legeztatzearekin batera, 1. fasearen zati bat (etxebizitza estalki behean egokitzeari dagokiona) bertan behera utzi beharko da.
- AURREKONTUAREN EGOKITZAPENA: Aipatu aldaketengatik aurrekontu egokitua aurkeztu da:

Lehen faseko egikairtu den zatia:	PEM 93.413,94e
Bigarren fasearen legeztatzea:	PEM 18.226,02e
GUZTIRA	111.639,96e



Usurbilgo Udala

Dagozkion tasen likidazioarako Kontuhartzaitletza Sailari jakinarazten zaiona.

- HONDAKINEN KUDEAKETA AMAIERA TXOSTENA ETA FIDANTZA ITZULTZEA: Hondakinen kudeaketarako amaiera txostena aurkeztu da eta beraz fidantza itzul liteke.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, **GAZTELU BASERRIA BIRGAITZEAREN 1. fasearen zati bati (eraikinaren kontsolidatzea) eta 2. fasearen legeztapenari ALDEKO txostena idazten zaio.**

Horrekin batera, GAZTELU BASERRIA BIRGAITZEAREN 1. fasearen beste zatia, estalki behean etxebizitza egokitzeari zegokiona bertan behera uzten da. Ohartarazten da, etorkizunean estalki behean etxebizitza egokitu nahiko balitza dagokion baimen eskaera egin beharko dela eta baita, etxebizitza unitate apartekoa izango bada, besteren artean irisgarritasun baldintzak bete beharko direla.

Hondakinen Kudeaketari dagokion fidantza itzul liteke.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2017ko abuztuaren 24ean
UDAL ARKITEKTOA
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JOSE LUIS URKIA ZABALA eta JUAN ARAMON URKIA ZUMETA jaunek, etxebizitza bat moldatuz eraberritutako Gaztelu baserriari – *GAZTELU BASERRIA BIRGAITZEAREN 1. fasearen zati bat (eraikinaren kontsolidatzea) eta 2. fasearen legeztapena*– (Aginaga 57) lehen erabilera baimena ematea udal arkitektoak jarritako honako baldintzekin:

- GAZTELU BASERRIA BIRGAITZEAREN 1. fasearen beste zatia, estalki behean etxebizitza egokitzeari zegokiona bertan behera uzten da. Ohartarazten da, etorkizunean estalki behean etxebizitza egokitu nahiko balitz dagokion baimen eskaera egin beharko dela eta baita, etxebizitza unitate apartekoa izango bada, besteren artean irisgarritasun baldintzak bete beharko direla.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria eta Kontuhartzaileari ematea.

5.- LANBIDE ESKOLAN 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2017-0399

USURBILGO LANBIDE ESKOLA ikastetxearen ordezkartzan diharduen XABIER AGIRRE ALZURU arkitektoak, lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeke eraikitzeke udal baimena eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	195.000,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.184,00 €
	Fidantza (%120): 2.620,80 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiuren Azkune andereak, 2017ko abuztuaren 17an ondoko txostena eman du:

UA2017_04_29

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

**USURBILGO LANBIDE ESKOLAN 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA
ERAIKITZEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Usurbilgo Lanbide Eskola, SGED-6, Usurbil.
ESKATZAILEA; USURBILGO LANBIDE ESKOLA
ESKAERA DATA; 2017ko uztaillaren 26
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2017OHAN0010 / hz.04/2017-0399
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 195.000euro.
HONDAKINEN KUDEAKETA: 2.184,0euro FIDANTZA (%120):
2.620,8EURO.

1. AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

- 2017ko uztailaren 26an Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean bertan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko baimen eskaera egin da.

2. TXOSTENA

Xabier Agirre jaunak, Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean bertan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko baimen eskaera egin du, dagokion Oinarrizko Proiektua aurkeztuz. Proiektua osatzen dutenak dira: memoria, planuak, aurrekontua eta hondakinen kudeaketa azterlana.

Proiektuaren helburua da:

“La escuela profesional de Zubieta tiene previsto adquirir una máquina de mecanizado de última generación destinada a la formación de sus alumnos en las nuevas tecnologías relacionadas con el mundo industrial.

En este sentido, los responsables del centro han propuesto, ante la necesidad de contar con un espacio adecuado para la instalación de esta máquina, la sustitución del actual taller existente y la posterior construcción de un nuevo taller de formación.”

“ El edificio cuenta con dos plantas sobre rasante y se adosa al actual edificio de los talleres al igual que el edificio precedente que se elimina.”

Usurbilgo Lanbide Eskola Zubietan kokatzen da, SGED 6 Sistema orokor izendatua egonik indarrean diren AASSTB-ren arabera.

Dokumentazio aztertuta honakoa esan daiteke:

- HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA: Esan bezala SGED-6 Sistema orokorrean kokatzen da Usurbilgo Lanbide Eskola eta ondorioz, aplikaziozkoa zaio hari dagokion hirigintza fitxa.

parametroa	SGED 6 HIRIGINTZA FITXA	OINARRIZKO PROIEKTUA
Azalera eraikia	400 m2ko okupazioa plantan duen hazkundera	BETETZEN DU
lerrokadurak	Ikus planoak	BETETZEN DU
profila	PB+2	BETETZEN DU

- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA: Betetzen dela justifikatu da. Edonola, proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- EXEKUZIO PROIEKTUA AURKEZTEA: Obrak egikaritzeko ezinbestekoa izango da aurrez Exekuzio Proiektua udalean aurkeztu eta haren onespena jasotzea.
- JARDUERA BAIMENA: Jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar da jarduera ezartzeko. Ohartarazten da, indarrean den araudiaren arabera ezinbestekoa dela jarduera bat martxan jartzeko dagokion baimena jaso edota aurretiazko komunikazioa egitea eta beraz, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.



Usurbilgo Udala

- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.184 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.620,8€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - o Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - o Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
 - o Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.
- ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da eta udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- BESTEAK: Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki ontzat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.

3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Usurbilgo Lanbide Eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatutako baldintzapean.

Oharazten da, indarrean den legediaren arabera jarduera martxan jartzeko ezinbestekoa dela jardueraren aurretiazko komunikazioa egitea. Horrekin batera, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2017ko abuztuaren 17an.

UDAL ARKITEKTOA

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: USURBILGO LANBIDE ESKOLA ikastetxearen ordezkariaren diharduen XABIER AGIRRE ALZURU arkitektoari, lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **EXEKUZIO PROIEKTUA.** Obrak hasteko ezinbestekoa izango da aurrez Exekuzio Proiektua udalean aurkeztua eta honen onespena jasotzea.
- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.184,00 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.620,80 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

2.620,80 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2017-0399*" jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin.
- AGM ARQUITECTOS SLP enpresako Xabier Agirre Alzuru, Enrique Munoa Fagoaga eta Unai Gamboa Moreno arkitektoek 2017ko ekainean (EHAEO 2017-07-18) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA. Proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- JARDUERA BAIMENA: Jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera ezartzeko. Ohartarazten da, indarrean den araudiaren arabera ezinbestekoa dela jarduera bat martxan jartzeko dagokion baimena jaso edota aurretiazko komunikazioa egitea eta beraz, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.
- Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki ontzat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainera jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.




Usurbilgo Udala

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigitaturik eta Kolegioan bisaturik.
 - c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
 - e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

6.- HAINBAT ELKARTERI 2017KO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIAK ORDAINTZEA.

Esp.: KE.01/2017-0096
KE.01/2017-0083

IKUSIRIK

2017ko otsailaren 13an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran, 2017eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte hauek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

San Praixku Guraso Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
54. Aste Santuko txokoak	270,00 €	202,5 €	Gastua: 399,73 € Sarrerak: 100,00 € Guztira Gastua: 299,73 € Soberakina: 29,73 €	67,50 €
59. Bertso Eskola	325,50 €	244,13 €	Gastua: 350,00 € Soberakina: 24,50 €	81,37 €
			Guztira	148,87 €

Noaua! Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
11. Inauteriak	2.325,00 €	1.743,75 €	Gastua: 2.971,72 € Soberakina: 646,72 €	581,25 €
12. Film laburren zirkuitua 2017	474,65 €	355,99 €	Gastua: 726,49 € Soberakina 251,84 €	118,66 €
13. Hitzaldi-solasaldia	509,06 €	381,80 €	Gastua: 748,76 € Soberakina: 239,70 €	127,27 €
14. Plis Plas Txalo eta jolas	928,86 €	696,65 €	Gastua: 1.211,05 €	232,22 €
			Guztira	1.059,39 €

ETA KONTUAN HARTURIK



Usurbilgo Udala

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2017an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2017/02/13).
- 2017ko diru-laguntzen behin behineko ebazpena (GAO, 2017/05/30)
- 2017ko diru-laguntzen behin betiko ebazpena (GAO, 2017/07/17)
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
San Praixku Guraso Elkarte	54,59	148,87 €
Noaua! Kultur Elkarte	11,12,13,14	1.059,39 €

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2017 (A 13/2017)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

7.- 2016/2017 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Josune Estella zinegotzia abstentzio egoeran aurkitzen da onuradun batekiko duen ahaidetasun harremanagatik. Hau horrela, quorum faltagatik puntu hau mahai gainean geratu da.

8.- AISIALDIKO DIRU-LAGUNTZEN BEHIN BETIKO ERABAKIA.

Esp.zenb.: KE01/2017-0141

Ikusirik

2017ko ekainaren 14an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 26an hasi eta uztailaren 7an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, ez da eskaerarik aurkeztu.



Usurbilgo Udala

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2017ko uztailaren 27an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2016/2017 ikasturtean aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena abuztuaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2016/17 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak (GAO, 2017/06/14)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2017-08-14)
- Kontuhartzailatza Sailaren ziurtagiria.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Diru-laguntza eskaerarik egon ez denez, diru-laguntzarik ez banatzea.

Bigarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hirugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 14:30ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.